

AGROEKOLOGIA

LANTZEKO GIDA



AURKIBIDEA

- 01** Lurraldea, klima eta gu **04**
- 02** Mila esker guri jaten emateagatik **05**
- 03** Agroindustria vs agroekologia **06**
- 04** Elikagaien zikloa **08**
- 05** Elikagaien ekoizpen zikloan sakontzen **09**
- 06** Fruitu baten azterketa **11**
- 07** Ekosistema bat irudikatu eta marraztu! **12**
- 08** Zuhaitz bat bazina.. **13**
- 09** Kuttun hori **14**
- 10** Laboreak ezagutzen! **15**
- 11** Lehiaketa **16**
- 12** Asteko hamaiketakoa **17**
- 13** Asteko hamaiketakoa aztertzen **18**
- 14** Mendari jasangarria **19**
- 15** Erleen lagun **20**
- 16** Alderdi Anitzeko Krisia **21**
- 17** Nola heldu gara honaino? **22**
- 18** Ni, neure gustuko **25**
- 19** Zer da ekonomia? Ze behar ditugu bizitzan? **26**
- 20** Beharrak zeinek eta nola asetzen ditu? **27**
- 21** Porrulandia **28**
- 22** Lan banaketak **31**
- 23** Laranjaren irakaspenak **33**
- 24** Etiken gorpila **34**
- 25** Printzipioak ekinean **35**





Gida honek agroekologia ikasgeletan landu ahal izateko baliabide bat izan nahi du. Agroekologia ekoizpen eredu bat baino askoz gehiago dela ulertzen dugu, bizirik dagoena babestea helburu duen mundu ikuskera oso bat hain zuzen.

Bidasoko badian kokatutako BDSkoop¹ sarearen parte garen hiru eragilek garatu dugu gida hau elkarlanean: Labore Txingudik, kontsumo arduratsua sustatzeko elkarteak, Sorburu baratza komunitarioak eta Ara!Gorputzek, feminismoa ardatz duen kooperatibak.

Jorratzen ari garen eraldaketa arnas luzeko prozesua dela jakinik, urtez urte material eta eduki berria sortzen ari gara. Hauek dira sarean² eskuratu, inprimatu eta erabil ditzakezunak:

- Eduki teorikoa eta berau lantzeko proposamen metodologikoak jasotzen dituen unitate didaktikoa.
- Agroindustriaren eta agroekologiaren arteko aldeak umorearen bidez adierazten dituen Porrulandia ikus-entzunezkoa.
- Bizitza Babesten, irrati saio sorta ekofeminista. Horrekin batera, hausnarketarako gakoak.
- Bidasoako ekoizpen eta kontsumo arduratsua ezagutzeko hiru saiotarako gida.
- Erleak hobeto ezagutzeko piko-piko jolasa, Bidasoako Erlezainen Elkartearekin batera sortutakoa.
- Baratzeko laboreak ezagutzeko karta jolasa.

¹ <https://www.bdskoop.eus/>

² <https://aragorputz.eus/ekonomia-feminista/ekonomia-feminista-eskoletan/> eta <https://laboretxingudi.eus/baliabideak/>

HELBURUA

- Elkar ezagutzea.
- Norbanakoak lurraldearekin eta klimarekin duen harremanera

IRAUPENA 20 min.

PERTSONA KOPURUA Talde osoa.

BITARTEKO MATERIALA Ezer ez.

METODOLOGIA

Lekua izanez ezkerro, espaziotik mugitzen joan daitezke partaideak eta dinamizatzaileok galderak hauek botako dizkiegu:

01

Noiz jaio zinen? Ilara batean jar daitezke, zaharrena punta batean eta gazteena beste puntan.

02

Non? Lurra mapa bat dela irudikatu dezakegu eta horren baitan kokatu daitezke partaide guztiak.

Hurrengo galderak mimika bidez erantzun daitezke, antzerki txikien bitartez, eta partaide guztiek bata bestea ikusteko tarteak utziko dugu:

03

Zure jaioterrian urtaroak hemengoak bezalakoak dira?

04


Zer eguraldi egiten zuen jaio zinenean?

05

Zer egiten duzu zure urtebetetzea ospatzeko?

06

Zein fruitu eta barazki daude zure urtebetetze garaian?




HELBURUA

Lurraren eta laborarien lanari aitortza txiki bat egitea.

IRAUPENA 20 min.

PERTSONA KOPURUA Talde osoa.

BITARTEKO MATERIALA Ilustrazioa proiektatuta.

Eskaneatu materiala
deskargatzeko

METODOLOGIA

Talde osoan irudia aztertu dezakegu eta hausnarketarako tarte bat ireki galdera hauek erabiliz:

01

Zer ikusten da marrazkian?

02

Zer esan nahi du esaldiak? Zergatik dio esaldiak laborariek eta lurrak jaten ematen digutela? Zer dira laborariak?

03

Mendi hori ezaguna egiten zaizu? Eta paisaia?

HELBURUA


Ekoizpen eredu agroindustrialaren eta agroekologiaren arteko ezberdintasunak

IRAUPENA 40 min.

PERTSONA KOPURUA Bikoteka.

BITARTEKO MATERIALA

Bikote bakoitzarentzako "Agroindustria vs agroekologia" irudia inprimatuta.



Eskaneatu materiala
deskargatzeko

METODOLOGIA

Dinamika hau bikoteka egitea proposatzen dugu. Pertsona batek goiko irudia ikusiko du eta irudia ikusten ez duenari minutu batez ikusten duena deskribatuko dio.

Ostean, biak jada marrazkia aztertuz eta galdera hauen bitartez, hausnarketari ekingo diote:

01 Janaria sortzeko bi era agertzen dira marrazkian, bereizten dituzue?

02 Erdiguneko berdegunean arreta jartzen baduzue, zein sentazio sortzen zaizkizue? Eta eremu grisean jartzen baduzue arreta, zein sentazio sortzen zaizkizue?

03 Janariak zein ibilbide egiten du eremu berdean? Eta eremu grisean?

04 Eremu berdearen eta eremu grisaren arteko ezberdintasunak zerrendatuko zenituzkete?

05 Aukeratu marrazkian agertzen den pertsona bat. Nolakoa uste duzue izango dela bere lanegun bat?

06 Irudikatu.. amona pare bat zaretela.

Zein eremutan bizitzea gustatuko litzaizueke? Berdean ala grisean?

Zein eremutan uste duzue egongo zinateketela zainduago?

Zein eremutan uste duzue edukiko zenituzketela ongi bizitzeko aukera gehiago?

Orain, galdera berdinetan pentsatu baina izaki bizidun hauek zaretela irudikatu..


..erle pare bat zarete.

..txakur pare bat zarete.

..txori pare bat zarete.

..zuhaitz pare bat zarete.

..haur pare bat zarete.



HELBURUA

Elikagaien ekoizpen ziklora hurbiltzea.

IRAUPENA 20 min.

PERTSONA KOPURUA Talde osoa.

BITARTEKO MATERIALA Ilustrazioa proiektatuta.




Eskaneatu materiala
deskargatzeko

METODOLOGIA

Talde osoaren aurrean irudia jarri dezakegu eta ikusten duguna denen artean azertu. Elikagaiak sortzeko prozesuan planifikazioa, ekoizpena, garraioa eta salmenta izaten dira ohiko faseak.

HELBURUA

Elikagaien ekoizpen zikloen ezaugarriak ezagutzea.

IRAUPENA Ordubete.**PERTSONA KOPURUA** Talde txikiak.**BITARTEKO MATERIALA** Paperak, bolalumak eta ilustrazioa pantaila handian.Eskaneatu materiala
deskargatzeko**METODOLOGIA**

Talde txikiak egingo ditugu. Jarraian, talde bakoitzari elikadura zikloarekin zerikusia duten zenbait elementu ezaugarritzeko eskatuko diogu, horretarako galdera sorta hauek balia ditzakegu:


01	Zer da bioaniztasuna? Definizio bat egingo zenuke? Bioaniztasuna garrantzitsua al da? Zergatik?
02	Zer dira lehengaiak? Definizio bat egingo zenukete? Zertarako balio dute lehengaiak? Non sortzen dira? Zeinenak dira? Zeinek erabil ditzake? Zein neurritan?
03	Zer da ekoizpena? Definizio bat egingo zenukete? Beharrezkoa al da ekoizpena? Zer elikagai ekoizten dira Bidasoan?
04	Zer da garraioa? Zer zerikusi dute garraioek eta distantziak elikadurarekin? Gaur gosaldutuzuenak zein distantzia egin du zuen etxera iritsi baina lehen? Badakizue zer den KM0?
05	Zer dira hondakinak? Definizio bat egingo zenukete? Elikadura ekoizpen eta kontsumoan, zein unetan sortzen dira hondakinak? Nora doaz hondakin horiek? Zer egingo zenukete hondakin horiekin? Nola murriztu daiteke hondakin kopurua?
06	Zer dira lan baldintzak? Definizio bat egingo zenukete? Elikagaiak sortzeko prozesuan lanik egiten al da? Zeinek egiten du lana? Zer dira lanbaldintza onak eta zer dira lan-baldintza txarrak?
07	Zer dira elikagaiak? Definizio bat egingo zenukete? Jan daitekeen guztiak elikatzen gaitu? Jan daitekeen guztia ona da? Uste duzue pertsona guztientzako janari osasungarria egon daitekeela? Zergatik gaur egun ez dago?
08	Zer da salmenta? Definizio bat egingo zenuke? Salmentarik gabe elikagairik lortzerik izango genuke? Saltzeko modu ezberdinak ezagutzen dituzue?
09	Bizi kalitatea zer da? Definizio bat egingo zenukete? Zuentzako, zer da bizi kalitate ona? Zein ezaugarri ditu? Eta txarrak, zein ezaugarri ditu?
Amaieran, talde bakoitzak landu duena partekatuko du eta agroekologiaren eta agroindustriaren arteko ezberdintasunetan jarriko dugu arreta.	

HELBURUA	- Hainbat fruituren ekoizpen zikloa ezagutzea. - Ekoizpen ziklo ezberdinak beraien artean alderatzea.
IRAUPENA 2 ordu.	PERTSONA KOPURUA Talde txikiak.
BITARTEKO MATERIALA	Talde bakoitzarentzako paperak, bolaluma, ordenagailu bat eta sarera sarbidea.
METODOLOGIA	Talde bakoitzari elikagai ez-prozesatu bat esleituko diogu. Bertako elikagaiak eta inportatutako elikagaiak egotea komeni da, beraien artean alderaketak egin ahal izateko. Taldekiek esleitutako elikagaiak aztertuko dituzte eta horretarako galdera hauek hartu ditzakete abiapuntu moduan:
01	Elikagai hori hemen ekoizten al da? Noiztik?
02	Non ekoiztutako elikagaia da?
03	Zeinek ekoiztu du elikagai hori? Enpresa handi bat izan da ala tokiko ekoizle bat izan da?
04	Non erosi dezakegu elikagai hori?
05	Zein prezio ordaindu dugu elikagai horregatik?
06	Ongarri eta pozoi industrialak erabili al dira elikagai hori ekoiztu ahal izateko?
07	Zein lan baldintza izan dituzte langileek elikagai hori ekoiztu ahal izateko?
08	Zein baldintza klimatiko behar ditu elikagai horrek heldu ahal izateko?
Ikerketaren emaitzekin infografia bat egitea proposatzen dugu. Infografia eskuz egin dezake edo bitarteko informatikoekin. Ostean, talde osoaren aurrean aurkezpenak egin ditzake ikasleek.	

HELBURUA	- Ekosistema baten hainbat aspektu aintzat hartzea. - Irudimena lantzea.
IRAUPENA 30 min.	PERTSONA KOPURUA Bakarka.
BITARTEKO MATERIALA Orriak eta bolalumak.	
METODOLOGIA	Parte hartzaileak zuzen esertzera, eskuak sabelean jartzera eta begiak ixtera gonbidatuko ditugu. Ostean, arnasketaren erritmoa aldatu gabe hiru aldiz arnasa hartzea eta hiru aldiz botatzea proposatuko diegu. Giro lasaia gailentzen denean, galdera hauek 01 Ezagutzen duzun toki bat aukeratu. Nolakoa da paisaia? Zein elementu ditu? Zein kolore? Zer tenperatura? Nolakoa da lurra? Eta zerua? Zein landare daude? Ba al dago urik? Ur asko ala gutxi da? Non dago ura? Erreka batean, putzu batean, tutu malgu batean, itsasoan? Zein animalia daude toki horretan?
02	Aukeratutako lekuan nolakoak dira urtaroak? Zein ezaugarri dituzte? Ba al daude udak, udazkenak, neguak eta udaberriak?
03	Urtaro bakoitzean zer elikagai ekoizten da?
04	Elikagai horiek ekoizten dituen pertsona irudikatu dezakezu? Nolakoa da? Non bizi da? Zer egiten du egun batean zehar? Zein lanabes ditu?

Ostean, elementu guztiak kontuan izanik marrazki bat sortzera gonbidatuko ditugu, baita irudikatu duten ekosistemaren aspektu ezberdinak kontutan hartzeko hausnarketara gonbidatu ere.



HELBURUA	• Ekosistemaren kalitatearen kontzientzia hartzea. • Irudimena lantzea. • Erlaxatzea.
IRAUPENA 15 min.	PERTSONA KOPURUA Bakarka.
BITARTEKO MATERIALA	Ezer ez.
METODOLOGIA	Parte hartzaileak zuzen esertzera, eskuak sabelean jartzera eta begiak ixtera gonbidatuko ditugu. Ostean, arnasa kontzienteki hartzera eta botatzea proposatuko diegu. Giro lasaia gailentzen denean, emeki-emeki, galdera hauek planteatuko ditugu: Irudikatu zuhaitz bat zarela.
01	Ze zuhaitz zara?
02	Ze tamaina duzu?
03	Zure enborra ze koloretakoa da?
04	Altua eta potoloa zara?
05	Fina eta motza?
06	Hostoak dituzu?
07	Zer dago zure inguruan? Ba al dago beste zuhaitzik zure inguruan?
08	Nabaritu zure adarretan bizi diren animaliek egiten dizkizuten kilimak.
Sentitu zure sustraiak, nola hondoratzen diren lurraren iluntasunean, nola topatzen duten hezetasuna. Agian zure sustrai batzuk lurrazaletik gora ere ageri dira eta pertsonak esertzeko erabiltzen dituzte. Zuhaitza irudikatu ostean, berau marraztera gonbidatu ditzakegu. Nahi duenak taldearekin partekatu dezake sentitu duena eta bere zuhaitza nolakoa den kontatu. Amaitzeko, ekosistemaren kalitateak bizi kalitatean eragina duela azpimarratuko dugu. 	

HELBURUA

- Jasangarritasun kontzeptura hurbiltzea.
- Jasangarritasuna tratu onarekin erlazionatzea.

IRAUPENA 20 min. **PERTSONA KOPURUA** Talde osoa eta bakarka.

BITARTEKO MATERIALA Ezer ez.

METODOLOGIA

Ariketaren xedea azaldu ostean, bakarka lan egitera gonbidatuko ditugu ikasleak. Hausnartu ahal izateko, giro lasaia sortzen saiatuko gara. Oinak lurrean ongi berrmatuta eta bizkarra zuzen mantenduta jarriko gara. Isiltasunean eta ikasleek begiak itxita dituztelarik, norbere arnasan arreata jartzera kilikatuko ditugu gazteak.

Giroa aproposa dela sentitzen dugunean eta oraindik isiltasunean, aspalditik duten eta beraientzat kuttuna den zerbait burura ekartzeko eskatuko diegu. Arropa bat izan daiteke, liburu bat, gailu elektroniko bat...

Erantzuna pentsatzeko tarte utzi ostean hurrengo galdera helaraziko diegu:

01

Aukeratu duzun objektu horrek, zergatik darama horrenbeste denbora zurekin?

Berriro ere segundo batzuk utziko ditugu bakarka hausnartzeko. Gutxika begiak irekitzen eta gorputza mugitzen hastera gonbidatuko ditugu eta nahi duenari otu zaiona partekatze aukera luzatuko diogu.

Ondo zaintzen diren gauzak gehiago irauten dutela ondorioztatuko dugu, eta jasangarritasunaren kontzeptuaren atzean zaintza eta tratu ona daudela azpimarratuko dugu.



HELBURUA

- Bertako laboreen ezaugarriak ezagutzea.

IRAUPENA 30 min.

PERTSONA KOPURUA Talde txikiak.

BITARTEKO MATERIALA Talde txiki bakoitzarentzako "karta jolas" pilo bat inprimatuta.

METODOLOGIA



Eskaneatu materiala
deskargatzeko

Jolasteko modu bat baina gehiago daude, hemen horietako bat azalduko dugu:

Lehenik eta behin kartak atalka sailkatu:

1. Hostoak
2. Loreak
3. Atal jangarria
4. Laborea

Jolas modu honetan norbaitek dinamizatzailerola hartuko du eta laboreen kartak buruz behera kokatuko ditu.

Hiru jokalaria talde osatu eta talde bakoitzari atal bat esleitu. Adibidez: "1 taldeari" hosto guztiak eman, "2 taldeari" loreak eta "3 taldeari" atal jangarriak. Jokalariak egokitu zaizkien kartak ikus ditzakete.

Dinamizatzailerak, ausaz, laboreen karta bati buelta emango dio eta guztientzat begi-bistan utzi.

Jokalariak agerian dagoen laborearen espeziari dagozkion kartak aterako dituzte: hostoaren, lorearen eta atal jangarriaren kartak, alegia.

Denek asmatzen badute, erretiratu eta ikusgai jarri. Espezie hori irabazi dute!

Asmatzen ez badute, dinamizatzailerak laborearen karta piloaren azpira itzuliko du eta talde bakoitzak bere karta jasoko du.

Dinamizatzailerak beste karta bat aterako du eta jolas dinamika errepikatuko dute, harik eta espezie guztiak irabazi arte.



HELBURUA

- Tokiko elikadura osatzen duten elementuetara hurbiltzea.

IRAUPENA 55 min.

PERTSONA KOPURUA Talde txikiak.

BITARTEKO MATERIALA Lehiaketaren aurkezpenaren proiektzioa, erantzun txartelak eta puntuazio orria.

METODOLOGIA



Eskaneatu materiala
deskargatzeko

Aurkezpen moduan gelako pantailan hamar galdera agertuko dira, banan-banan. Talde bakoitzak galdera bakoitzarentzako hainbat erantzun txartel izango ditu.

Denbora mugatu batean dagokion txartela aukeratu beharko dute talde erantzun gisa.

Talde guztiek erantzuna eman ostean, pantailan erantzun egokia jarriko dugu eta beharrezko azalpena emango dugu.

Galdera guztiak erantzuterakoan lortutako puntuazioak partekatuko ditugu eta ezagutza maila berretsiko dugu. Lortutako emaitzen arabera balorazio hauek egingo ditzakegu:

0-2: Baina... non bizi zarete? Pantailak albo batera utzi eta naturan barnetegi baten premia bizia duzue!

3-5: Eskerrak naturatik gertu bizi garen! Altxa buruak pantailetatik eta jolastu apur bat gehiago naturan, ireki begiak, aitona-amonekin gehiago hitz egin!

6-8: Esperantza badago zuekin baina badago zer ikasi oraindik, pantailetatik haratago ezagutza praktikoa ez ahaztu!

9-10: Teoria dezente dakizuela dirudi. Orain ezagutza praktikoa frogatu behar!



HELBURUA

- Erosketa egiten dugunean kontuan hartzen ditugun irizpideez kontziente izatea.
- Elikadura kontsumo jasangarria egiteko, jasangarritasunaren oinarritzko irizpideak.

IRAUPENA 55 min.**PERTSONA KOPURUA** Talde txikiak.**BITARTEKO MATERIALA** "Asteko hamaiketako" orria inprimatuta eta bolaluma bat taldeko.**METODOLOGIA**

Eskaneatu materiala
deskargatzeko

Egunerokotasunean kontsumitzen ditugun elikagaiek zer nolako inpaktua duten aztertuko dugu.

Produktu bakoitzaren prezioaz edota itxuraz gain, horren erraz ikusten ez ditugun aldagaiak eta horiek eragiten duten inpaktua (ingurumenean, gizartean zein pertsonengan) kontuan hartuko dugu.

Talde bakoitzari produktuen katalogoa eta erosketa fitxa bana emango dizkiogu. Erronka bat izango dute: aurrekontu jakin baten barruan, taldekide guztientzako aste osorako hamaiketako erostea.

Talde bakoitzeko kide kopururen arabera aurrekontua emango diegu: 5 € pertsonako. 4 kideko taldeak adibidez 20€ izango ditu eta 5 kideko taldeak 25€.

Erosketa fitxako aurrekontuekin kalkuluak egin eta erosketa zehaztu beharko dute. Era berean, zenbat diru erabili duten idatziko dute.

Asteko egun bakoitzean zer jango luketen ere idatzi beharko dute, eta azkenik aukeratutako produktuak zergatik erosiko lituzketen argudiatu.

Elkar jartzea egiteko talde bakoitzak bozeramaile bat izango du eta berak azalduko ditu erosketaren nondik norakoak.



HELBURUA

- Erosketa egiten dugunean kontuan hartzen ditugun irizpideez kontziente izatea.
- Elikadura kontsumo jasangarria egiteko, jasangarritasunaren oinarrizko irizpideak zeintzuk diren jakitea.

IRAUPENA 55 min.

PERTSONA KOPURUA Talde txikiak.

BITARTEKO MATERIALA "Asteko hamaiketakoa" orria inprimatua eta bolaluma bat taldeko.

METODOLOGIA



Eskaneatu materiala
deskargatzeko

"Asteko hamaiketakoa" dinamikaren ostean egiteko ariketa da hau. Erosketarekin amaituta, egindako aukeraketak zein inpaktu izan duen neurtuko dugu. Katalogoan, produktu bakoitzak lau aldagai ditu: distantzia, nutrizioa, ekoizpena eta hondakinak. Aldagai bakoitzak puntuazio jakin bat du. Puntuazio baxuenak inpaktu positiboena adierazi nahi du, puntuazio geroz eta altuagoak aldiz, produktuaren inpaktu geroz eta negatiboagoa adierazten du. Hauek dira aldagai bakoitzak aintzat hartzen dituen faktoreak:

- Distantzia: Produktu bakoitzaren osagaien eta horien bilgarrien distantziak hartuko dira kontuan.
- Nutrizioa: Geroz eta prozesatu maila handiagoa geroz eta nutrizio balio negatiboagoa.
- Ekoizpena: Zenbat eta eraldaketa handiagoa, energia kontsumoa eta sortutako hondakine inpaktua negatiboa izango da.
- Hondakinak: Hondakin organikoen kontrako muturrean egongo dira erabilera bakarreko plastikoak.

Elkar jartzea egiteko talde bakoitzak bozeramaile bat izango du eta berak azalduko ditu erosketaren inpaktuaren nondik norakoak.



HELBURUA

- Jasangarritasun hitzaren gaineko hausnarketa egitea.
- Kontzientziaren eraldaketarako talde lanaren garrantziaz jabetzea.

IRAUPENA 55 min.**PERTSONA KOPURUA** Talde txikiak.**BITARTEKO MATERIALA**

Jasangarritasun hitzaren gaineko hausnarketa egitea.
Kontzientziaren eraldaketarako talde lanaren garrantziaz jabetzea.

METODOLOGIA

Urtebetetze festa baterako mendaria antolatu beharko dute taldeek. Jatekoaz gain, elkarrekin ondo pasatzeko ekintza bat antolatu beharko dute. Ospakizuna ahalik eta jasangarriena izateko pertsonak, ingurumena eta ekonomia kontuan hartuko dituzte.

Lehenik eta behin, ospakizunaren data zehaztu beharko dute. Izan ere, elikagai eta ekintzen ezaugarriak urtarok baldintzatuko ditu.

Talde bakoitzak orri bat izango du, eta bertan mendariaren osagaiak, errezetak eta aurkezpenak deskribatuko dituzte. Baita ondo pasatzeko ekintzen programa ere. Horrekin, testu literario bat osatuko dute: ipuin bat, prentsa artikulua bat edo blog baterako kontakizun bat adibidez.

Amaitzeko, emaitzak partekatuko ditugu eta prozesuan arreta deitu dienaren inguruan hausnartuko dugu.



HELBURUA

- Erleak pixka bat ezagutzea.

IRAUPENA 40 min.

PERTSONA KOPURUA Bakarka eta bikoteka.


BITARTEKO MATERIALA Pertsona bakoitzarentzako "piko-piko" bat inprimatuta eta margoak.

METODOLOGIA

Bidasoako Erlezainen Elkartearekin elkarlanean sortutako piko-piko bana inprimatu, margotu, eranskinean jartzen duen moduan doblatu eta jolastu!



Eskaneatu materiala
deskargatzeko



HELBURUA

- Krisi anitzen testuingurura hurbiltzea.

IRAUPENA 55 min.**PERTSONA KOPURUA** Talde osoa eta talde txikiak.**BITARTEKO MATERIALA** Paperak, bolalumak, arbela eta klariona.**METODOLOGIA**

1. Fasea. Denak elkarrekin hasiko dugu dinamika. Hainbat krisiri erantzuna emateko erronka dugula adieraziko dugu eta horien inguruko nondik norako orokor batzuk adieraziko ditugu.

Hainbat krisi izendatzera gonbidatuko ditugu ikasleak. Energia krisia eta finantza krisia aisa azaleratuko dira. Baina pobrezia eta emakumeen kontrako indarkeria ere aipa ditzakegu.

Hainbat krisi daudela argi gelditzen denean, bigarren fasean murgilduko gara.

2. Fasea. Talde txikietan banatuko dira ikasleak eta bakoitzari krisi pare batean sakontzera gonbidatuko ditugu. Krisien jatorriaren eta horien ondorioen inguruan arrazoitzea proposatuko diegu.

3. Fasea. Talde bakoitzak aurkezpen bat egingo du ikaskide guztien aurrean eta ostean debaterako tarteak irekiko ditugu.

Saioa borobiltzeko, krisi horien aurrean artikulatzeko beharra sentitzen duten ala ez komentatuko dugu eta xede horri erantzuteko alternatibak sortu zirela adieraziko dugu.



HELBURUA

- Mundua aldatzeko dugun gaitasuna erakustea.

IRAUPENA 55 min.**PERTSONA KOPURUA** Talde osoa eta talde txikiak.**BITARTEKO MATERIALA**

Paperak, bolaluma, "Rosa Parks, Ikasleen greba Erresuma Batuan eta l'HS-aren irakurgaiak" eranskinetan daude. Horiek inprimatuta, ordenagailuak eta sarera sarbidea.

METODOLOGIA

Bidegabeak ziren arauen aurkako protestak edota lorpen esanguratsuak lortu dituzten mugimendu batzuk aztertuko ditugu.

Talde txikietan banatuko ditugu ikasleak eta talde bakoitzari jarraian dagoen testu bat banatuko diogu. Beraien lehen egitekoa testua irakurtzea eta ulertzea izango da.

ROCHDALE

Muturreko pobrezia eta jendarte-injustiziaren testuinguruan, 1844an eratu zen Rochdalen, Ingalaterrako iparraldeko herri txiki batean, gaur egun kooperatibagintza modernoaren amatzat hartzen den kontsumo-kooperatiba. 27 gizonen eta emakume batek libra bat aurreztu zuten urtebetean zehar kooperatiba sortzeko.

XIX. mendeko 40ko hamarkada gosearen hamarkada deitu zen Rochdalen. Herritarrak gosez hiltzen ziren bitartean, lantegietan hamahiru orduko lanaldia lortzeko borrokatzen ziren. Enpresek irabaziak handitzen zituzten bitartean, mobilizazioek eta grebek ez zuten lortzen egoera horrekin bukatzea. Lanbaldintza tamalgarriez gain, enpresek langileak behartu egiten zituzten elikagaiak beren ekonomatoetan (enpresen dendetan) erostera, elikagaien prezioa kontrolatuz eta muturreko pobreziaren egoera larriagotuz. Prezio gehiegikeria edota produktuak egoera txarrean egotea ohikoa zen.

Egoera hori arintzeko asmoz, Rochdaleko aitzindariak 28 libra bildu eta oinarritzko elikagaiak erosi zituzten, gero bidezko prezioan saltzeko. Lortutako etekina berrinbertitu egiten zuten kooperatibaren eta bazkideen beharrak asetzeko. Kooperatiba bezala eratu zirenean, balio batzuk ezarri zituzten: elkarrekiko laguntza, auto-erantzukizuna, demokrazia, berdintasuna eta elkartasuna.

Eta balio horien babesean sortu ziren kooperatiben printzipioak: sarrera libre eta boondatezkoa, kudeaketa demokratikoa, parte-hartze ekonomikoa, autonomia eta independentzia, hezkuntza, prestakuntza eta informazioa baita kooperatiben arteko lankidetzak eta komunitatearekiko interesa ere.

Balore eta printzipio horiek kooperatiba-mugimenduak bere egin zituen, eta gaur egun munduko kooperatiba guztietan daude indarrean (edo, behintzat, hala behar luke).

ROSA PARKS

Iturria: Wikipedia

Rosa Louise McCauley Parks, Rosa Parks gisa ezaguna, emakume estatubatuar beltz eta aktibista izan zen. 1950 urtetik Eskubide Zibilen Mugimenduko kide izan zen. 1955ko abenduaren 1ean, 42 urte zituelarik egindako ekintzagatik ezaguna egin zen. Egun horretan bere etxera itzultzeko autobusa hartu zuen Estatu Batuetako Alabama estatuko Montgomery hirian.

Garai hartan autobus publikoak pertsonen arrazaren edo azal kolorearen baitan banaturik zeuden. Aurrean zuriak, atzean beltzak eta erdian zuri zein beltzak, baldin eta zurientzako tokia bermatuta bazegoen.

Zurientzako tokia egon ezean, pertsona beltzek altxa eta zuriei utzi behar zieten tokia, legeak hala esaten zuelako. Autobusa bete zenean, txoferrak, Rosa eta beste hiru mutil beltzei agindu zien mutil zuri bati tokia uzteko. Hiru mutilek agindua bete zuten baina Rosak uko egin zion tokia uzteari. Ekintza horregatik Rosa kartzelan sartu zuten eta isuna jarri zioten.

Erantzun gisa, Eskubide Zibilen Mugimenduaren buru bihurtuko zen Martin Luther King eta Rosaren lagun Johnnie Carr-ek autobusen aurkako boikot kanpaina hasi zuten. Montgomeryko populazio beltzak uko egin zion autobusetan ibiltzeari. Tokietara iristeko elkarren artean antolatu ziren eta oinez joateari ekin zioten. 382 egunez iraun zuen protesta hark herrialde guztiko pertsona askoren babesas jasotzeaz gain, afera Epaitegi Gorenera heldu zen eta espazio publikoetako segregazioa konstituzioaren aurkakoa zela ebatzi zuen.

Rosa Parks-en ekintza hura Eskubide Zibilen Mugimendua eta oro har populazioaren mobilizazioa hauspotu zituen txinpartatzat jotzen da.



IKASLEEN GREBA ERRESUMA BATUAN

Iturria: Argia eta Wikipedia

Zigor fisikoen aurka eta ikastetxeko baldintza txarrak salatzeke Galeseko Lanelly herrian hasitako ikasleen grebak Erresuma Batu osoan zehar zabaldu ziren 1911 urteko irailean zehar.

Irailaren 14ean Eskoziako Dundee hirira greba mugimendua iritsi zen eta protesta jendetsuenari ekin zioten; milaka ikaslek greba hasi zuten zigor fisikoak salatzeke eta opor gehiago eskatzeko. Eskutan makilak eta harriak hartuta hirian zehar ibili ziren, irekita zeuden eskoletan piketeak antolatuz. Hainbat hiritan ikasleak antolatu ziren, zer eta nola egin erabakitzeke komiteak eta piketeak osatu zituzten. Greba hartan neskak zein mutilek parte hartu zuten.

Protestarako modu ezberdinak erabili zituzten tokian toki eta baketsuak izan ziren gehienak: manifestazioak egin zituzten, protesta leloak eta kankak sortu zituzten, latak makilekin kolpatzen zituzten eta haiek jotzeko erabiltzen zituzten larruzko uhalekin eskoletako ateak lotu zituzten. Londres hirian burdinazko makilekin irten ziren protestan kalera eta Dublinen irakasleei aza ustelak jaurti zizkieten.

IRUNGO HARRERA SAREA (IHS)

2018. urteko udan, Estatu frantsesera igaro nahian Irunen blokeaturik gelditu ziren migratzaile eta errefuxiatuei erantzun bat emateko osatu zen herritar sarea da. Aurrera ezin egiteak suposatzen zuen egoeraren aurrean, muga igarotzen zeudenei oinarritzko baliabideak bermatzeko antolatu ziren herritarrak. Izan ere, atsedeen hartzeko, mugikorrek kargatzeko, dutxatzeko edota indarrak hartzeko toki bat behar zuten.

Baliabide horiek bilatzearekin batera, bidegabekeria publikoki salatu izan du beti IHS-k prentsa-aurreko, idatzi, ekintza eta manifestazio bidez. Egun Irunen migratzaile eta errefuxiatuei harrera egiteko dauden baliabideak, herritarrek bideratu zituzten eskari, ekintza eta protesten ondorioz lortu ziren.

Istoria bakoitzaren aurkezpen txiki bat egingo die ikaskideei talde bakoitzak. Ondoren, talde bakoitzak beste gizarte mugimendu baten inguruko informazioa bilatuko du. Berririo ere, ikertutakoa talde osoaren aurrean aurkeztera gonbidatuko ditugu.

Amaitzeko, gaur egun ditugun eskubideak hainbat eta hainbat lagunek irekitako bideen emaitza direla oroitaraziko dugu. Eta gure testuinguruan baita, eragin gaitasuna dugula.

HELBURUA

- Autoestimua lantzea.

IRAUPENA 40 min.**PERTSONA KOPURUA** Bakarka.**BITARTEKO MATERIALA** Paperak eta bolalumak.**METODOLOGIA**

Dinamika honekin, zenbait auto-opari egingo dizkio norberak bere buruari. Agendan, paper batean ala koaderno batean beraien buruaz gustatzen zaizkien 5-10 gauza idaztera gonbidatuko ditugu ikasleak. Gaitasun fisikoak, emozionalak, intelektualak, artistikoak edo erlazionalak izan daitezke, baita harro sentiarazten dien zerbait edo ezaugarri fisiko bat ere, beraien buruaz maite duten edozerk balio du.

Idatzi ostean talde handian partekatzeraz gonbidatuko ditugu. Inork ez badu partekatu nahi errespetatuko dugu.

Tanketa honetako ariketak nerabeekin maiz egitea oso garrantzitsua da segurtasun falta eta auto gorroto askoko garaia izaten delako. Dinamikaren azken mezua hurrengoan izan daiteke: maitasunak eta tratatu onak norabide anitz hartzen ditu bizitzan. Norabide horien artean koka dezagun gurekin bizitza guztian zehar egongo den hori: gu geu. Geure aliatu ederrena izan gaitezen.



HELBURUA

- Egungo ekonomia ereduaren inguruan hausnartzea.

IRAUPENA 55 min.**PERTSONA KOPURUA** Talde osoa.**BITARTEKO MATERIALA** Paperak, bolalumak, arbela eta klarionak.**METODOLOGIA**

Lehenik eta behin arbela bitan banatuko dugu, eremu bakoitzean lanketa bat islatzen joango garelako. Lehen atalean ideia zaparra baten emaitzak jasotzen joanen gara. Fase horretan ez da egongo ekarpen egoki ala desegokirik. Lehen ideia zaparradarako giltza galderak hauek izango dira:

01

Zerekin erlazionatzen duzu ekonomia? Zein hitz datorkizu burura? Zein esaldi?

Diruarekin zerikusia izango duten terminoak izango dira nagusi. Lanketaren bigarren fasera igarotzeko, ekonomiaren inguruko hurrengo definizioa planteatuko diegu: "Bizitzako beharrizanak asetzeko jendarte antolaketa eredu da ekonomia".

Bigarren ideia zaparrada bat abiatuko dugu eta arbelaren bigarren eremuan idazten joango gara ateratakoa. Hau izango da giltza galdera:

02

Guk, bizitzeko ze behar ditugu? (ura, arreta afektiboa, etxebizitza, bakea..)

Azkenik, eta ondorio moduan, arbelaren eremu batean eta bestean ateratako ideiak alderatuko ditugu hurrengo galderari erantzunez:

03

Egungo ekonomia ereduak asetzen al ditu bizitzeko beharrizanak? Behar horietako zeintzuk daude zuzenean

Hau planteatuko dugu ondorio moduan: ekonomia kapitalistaren ardatza gutxi batzuk dirua pilatzea da, ez gehienon beharrak asetzea. Ekonomia Feministak zaintza duenez abiapuntu eta helmuga behar horietan jartzen du fokua.




HELBURUA

- Ekonomia Feministara hurbiltzea.
- Jendarte antolaketa kapitalistaren oinarrizko akatsa azaleratzea.
- Lan ez ikusgarrien balioa aitortzea.

IRAUPENA 30 min.**PERTSONA KOPURUA** Talde osoa eta talde txikiak.

BITARTEKO MATERIALA Paperak, bolalumak, arbela eta klarionak. “EF poster” bana pertsona bakoitzarentzat (eranskinetan).

**METODOLOGIA**

Lehenik eta behin, pertsona bakoitzari “EF poster” bat emango diogu. Lasai irakurri ostean, talde txikietan lan egingo dugu. “Zer da ekonomia? Zer behar ditugu bizitzan?” dinamikan bizi ahal izateko ditugun beharren zerrenda osatu zuten ikasleek. Oraingoan, talde bakoitzak beharrian bat aukeratuko du eta beharrian hori ase ahal izateko zenbat lan egin den zerrendatzera gonbidatuko ditugu. Adibidez:

“Arropa. Guk orain arropa izan ahal izateko zer gertatu da? Atzera eginez, arropa hori norbaitek armairuan gorde zuen, aurretik norbaitek garbitu, hedatu eta tolestu zuen. Aurretik norbaitek erosi zuen. Aurretik norbaitek garraiatu zuen. Aurretik norbaitek josi zuen eta horretarako nonbaiteko ondasun naturalak erabili zituzten.”

Prozesu guztian zehar zein pertsona, zein lan baldintza eta zein ondasun komun egon den aztertzeraz gonbidatuko ditugu. Hurrengo galderak lagungarriak izan daitezke:

- | | |
|-----------|--|
| 01 | Emakumeak izan dira lan hori egin dutenak ala gizonak? |
| 02 | Nongo pertsonak izan dira? |
| 03 | Herrialde pribilegiatutakoek zein rol jokatu dute? |
| 04 | Eta kolonizatutako herrialdeetakoek? |
| 05 | Gizakiena ez den lanik egon da? |
| 06 | Soldatarik izan al dute langile guztiek? |
| 07 | Zenbateko soldatak irudikatzen dituzu? |

Talde txikietan egindako lana partekatzerako orduan, lagungarria izan daiteke arbelean izotz mendi bat marraztea. Ur gainean dagoen zatia txikia izango da. Ur azpikoa aldiz, izugarri handia izango da eta goiko aldea sostengatuko du. Ekonomia Feministan izotz mendia metafora moduan erabiltzen dugu lan ikusgarriak eta ez ikusgarriak banatzeko. Aitortza dutenak eta ez dutenak banatzeko.



Zerrendatutako lanak aipatzen joango dira ikasleak eta horietako lan bakoitza izotz mendiaren goiko aldean edo beheko aldean kokatzea proposatuko dute.

Amaitzeko eta ondorio moduan hau aipatu dezakegu: antolaketa eredu kapitalista ez da jasangarria bizi ahal izateko beharrezkoak diren ahalegin eta prozesuak ez direlako zaintzen.


HELBURUA

- Eredu agroekologikoa eta agroindustriala alderatzea.

IRAUPENA 55 min.

PERTSONA KOPURUA Bikoteka.

BITARTEKO MATERIALA QRan dagoen bideoaren proiektzioa.

Eskaneatu materiala
deskargatzeko

METODOLOGIA

Bideoa bi aldiz ikustea proposatzen dugu. Lehenengo aldian pertsonaia nagusietan arreta jarritz eta bigarren aldian komentarioetan arreta jarritz.

Lehen aldiz ikusi ostean, bikoteka kokatuko dira ikasleak eta galdera

01

Zeintzuk dira protagonistak? Zein ezaugarri du beraietako bakoitza

02

Uste duzue badaudela Porru Patata Anderea bezalako porruak eta Madame Vichyssoise bezalakoak?

Non topatu ditzakegu horietako bakoitza?

03

Garbia egotea, lurrik ez edukitzea da bakarrik? Beste zein ezaugarri eduki beharko genituzke kontuan zerbait garbia dagoela esan ahal izateko?

04

Zein bidai egiten du Madame Vichyssoisek? Zenbat kilometro?

05


Zein porru zaintzen dute hobeto? Zein uste duzue dela

06

Zein porru mota da gehien saltzen dena gaur egun? Zergatik?

07

Zeintzuk dira porru bakoitzaren alde onak eta alde txarrak?



08

Zein porru da merkeagoa? Merkeagoa izatea diru gutxiagoren truke eskuratu ahal izatea

09

Klima aldaketa zein ekoizpen ereduren ondorio da, besteak beste? Klima aldatzen egotea ona da? Zer gertatzen da klima aldatzen denean?

10

“Eskubide guztiak guztiontzat” dio Porru Patata Andereak. Zer esan nahi du horrek? Zein eskubide bururatzen zaizkizu? Zeinek eduki ditzake eskubideak? Zeinek ditu eskubideak bermatuta gaur egun eta zeinek eduki beharko lituzke gehiago? Naturak eskubideak izan

11

Zuk nor bozkatuko zenuke, Madame Vichyssoise ala Porru Patata Anderea?

Bikoteka hausnartu ostean, elkar jartzea egingo dugu gelakide guztien artean. Bikote bakoitzak galdera bati erantzungo dio eta beste bikoteek erantzuna osatuko dute.

Orain, bikote bakoitzari txatean parte hartzen duten pertsonai pare bat esleituko dizkiegu.

Bideoa bigarren aldiz ikusiko dugu eta bikote bakoitzak arreta berezia jarriko du esleitu zaizkion pertsonaien komentarioetan. Bideoa ikusi ostean, galdera hauek egingo dizkiegu ikasleei:

12

Zein pertsonai aztertu duzu? Nola zuen izena? Zein ezaugarri zuen? Zergatik esaten zuen esaten zuena?



Berriro ere, bikoteka hausnartzeko tarte irekiko dugu eta gero, elkar jartzea egingo dugu gelakide guztien artean.

HELBURUA

- Bizitzeko beharrezkoak diren lanen ikusgarritasunaz eta aitortzaz hausnartzea.

IRAUPENA 30 min.**PERTSONA KOPURUA** Bakarka eta talde osoa.**BITARTEKO MATERIALA** Paperak eta bolalumak.**METODOLOGIA**

Balio sistema eta antolaketa eredu bidegabe baten bizi garen heinean, logika horren baitako pentsamolde eta jarduteko moduak izatea da ohikoena. Horregatik, epairik gabe behatzea proposatuko diegu. Bakarka, hurrengo galderez hausnartzera gonbidatuko ditugu:

01

Zure familian, zeinek egiten ditu lan ordu asko etxetik kanpo?

02

Eta zeinek egiten ditu lan ordu asko etxe barruan?

03

Zeinek polinizatzen ditu jaten dituzun barazkiak?

04

Gehienetan, nor ikusten duzu aitona-amonak zaintzen?

05

Zeinek garbitzen du arnasten duzun airea?

06

"Futbolari profesionala" entzuten baduzu, emakume bat irudikatzen duzu?



Talde handian erantzunak partekatzeko eta elkarrekin hausnartzeko tarte hartuko dugu. Horretarako, galdera hauek proposatzen ahal dizkiegu:

- | | |
|-----------|---|
| 07 | Zerbaitek arreta deitu al dizu? |
| 08 | Pentsatu al zenuen noizbait naturak lan egiten duela? |
| 09 | Uste duzu ordaintzen diren lanek aitortza handiagoa duela? |
| 10 | Uste duzu ordaintzen ez diren lanak garrantzitsuak direla? |
| 11 | Ordaintzen ez diren lanak aitortzea garrantzitsua izan daiteke? |
| 12 | Hala uste baduzu, nola egingo zenuke? |
| 13 | Gauzak beste modu batean egiteko aukerarik ba al dago? |
| 14 | Zein dira zuk dituzun ardurak zaintza esparruan? |
| 15 | Betetzen dituzu? |

Ondorio moduan, lan ez ikusgarri gehienak emakumeon, animalia ez gizatiarren eta ondasun naturalen esku daudela aipatuko dugu. Lan eta prozesu horiek aitortzarik ez izateaz gain, maiz suntsituak izaten dira.

Amaitzeko, itxaropen argi bat utziko dugu, aldaketa gure esku dagoela azpimarratuz.



HELBURUA

- Kooperazioa lehia baina emankorragoa dela ikustaraztea.

IRAUPENA 15 min.**PERTSONA KOPURUA** Bi pertsona talde aurrean
esperimentua egiteko.**BITARTEKO MATERIALA** Laranja bat.**METODOLOGIA**

Bi pertsona aterako dira klase kideen parera esperimentu bat egitera. Bakoitzari zerbait eskatuko diogula adieraziko diegu, eta bakoitzak ahal duena egin beharko duela bere xedea lortzeko. Honela, momentu batez klasetik aterako dira bi ikaskideak.

Beste gelakideei esango diegu zer eskatuko diegun atera direnei: bateri laranjaren azala eskuratu behar duela esango diegu eta besteari laranjaren mamia.

Gela barrura gonbidatuko ditugu kanpoan itxaiten daudenak eta bakoitzari eskaera bat egingo diegu. Bikoteko kideek ez dute jakingo zer eskatu diegun besteari.

Normalean, esperimentua hasten denean bi kideak lehiatzen hasten dira laranja osoa lehendabizi eskuratzeko. Eta erantzun hori ematen denean batek bakarrik lortzen du bere xedea.

Ondorio moduan adieraziko dugu kooperatu izan balute eta batak besteari esan zer behar zuen, adostasun batera heldu ahal izango zirela eta biak izango zirela irabazle.



HELBURUA

- Permakulturaren etika ulertzea eta hori egunerokoan aplikatzeko aukera aztertzea.

IRAUPENA 30 min.**PERTSONA KOPURUA** Talde txikiak.

BITARTEKO MATERIALA “Permakultura printzipioak” dokumentuaren 5, 6 eta 7 orrialdeak inprimatuta, paperak eta margoak.

METODOLOGIA

Permakultura bizitza ekologiko eta jasangarrirako diseinu-sistema bat da.



Hiru etika nagusitan oinarritzen da: luraren zaintza, pertsonen zaintza eta bidezko banaketa. Permakultura-diseinuaren oinarrian dauden hiru etika hauek, ingurunearekin oreka erlatiboan egon diren edo izaten jarraitzen duten gizarte tradizionalen ikerketetatik atera dira.

Talde bakoitzari etika baten txartela emango diogu.

Eskaneatu materiala
deskargatzeko



Esleitu diegun etikaren inguruko esanahia eztabaidatuko dute, baita etika hori egunerokotasunean nola aplikatu daitekeen ere.

01

Lurra zaindu. Zer esan nahi du zuentzat lurra zaintzeak? Zuek

02

Pertsonak zaindu. Zer esan nahi du zuentzat pertsonak zaintzeak? Zuek nola zaintzen dituzue pertsonak?

03

Bidezko banaketa. Zer esan nahi du zuentzat bidezko banaketak? Zuen bizitzako zein eremutan dago bidezko banaketa?

Talde bakoitzak esleitu zaion etika irudikatzeko marrazki bat sortuko du. Talde bakoitzak hausnartutakoa eta marraztutakoa partekatuko dute.

HELBURUA

- Permakulturaren printzipioen esanahia barneratzea.

IRAUPENA 45 min.**PERTSONA KOPURUA** Talde txikiak.

BITARTEKO MATERIALA “Permakultura printzipioak” dokumentuko 8-45 orriak, arbela eta klarionak, margoak.

METODOLOGIA

Eskaneatu materiala
deskargatzeko

Taldeak osatuko ditugu eta kartak taldeen artean banatuko ditugu. Adi, kartak bikoteka daude antolatuta, horiek ez haustea garrantzitsua da.

Behin taldetan, printzipio guztien kartak mahai batean edo lurrean zabalduko ditugu. Partehartzaileak, lasai-lasai, karta guztiak behatzera (ikustera, irakurtzera eta sentitzera) gonbidatuko ditugu.

Esanahiak aztertu ostean, printzipio bakoitzaren karta dagokion esaldiaren kartarekin elkartzea proposatuko diegu. Adibidez: “behatu eta elkarri eragin” - “behatzen duenaren begietan dago edertasuna”

Gero, esleitu zaizkien printzipioak bizitzako egoera batekin erlazionatzera gonbidatuko dugu.

Amaitzeko, talde bakoitzak egindako hausnarketa partekatuko du talde osoarekin.



AGROEKOLOGIA

LANTZEKO GIDA

